

# Mundua begiratzeko moduak

Zihara Enbelta

Argazkiak: Agian

Zinema areto komertzialetaraino iritsi da Arkaitz Basterra zuzendariaren *Agian* film dokumentala. Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Bingen Mendizabal eta Mikel Valverde dira protagonista, denek elkarlanean sortu zuten *Zaharregia txikiegia agian* izeneko proiektuarekin batera, noski.



**AGIAN, AKASO, APIKA**, beharbada. *Maybe* Ezer ez da absolutua Arkaitz Basterra zinema zuzendariaren esanetan. Horregatik bere lehenengo luzemetraian erantzunak eman beharrean, galderak dakarzkigu.

Musika, poemak eta marrazkiak tartekatzen ditu *Agianek*. *Zaharregia txikiegia agian* emanaldiak berak eskaintzen du hori. Hainbat diziplina batzen dituen proiektua da. Musika, poesia eta pintura lan berean. “Horiek egon behar zuten pelikulan. Hiru konbinazio horiek gehi zinema” dio Basterrak. Aipatu diziplinek garrantzia hartu dezaten, “erarik oinarritzkoen eginda dago. Zinema efektista egiten baduzu, poemen garrantzia galdu daiteke, edo pinturen garrantzia...”.

Protagonistek euren bizitzako hainbat gauza kontatuko dute kamera aurrean, bakoitzak bere aldetik eta bakoitzaren hainbat alde erakutsiz. Zuzendariak kontatu gura zuena

azaltzeko behar zituen alde horiek. Hala ere, manipulatu gabeko elkarrizketak dira, pertsonaiak jendearengana hurbiltzeko asmoa dutenak. “Esan digutenez ikusi ostean filmaz egiten dute berba. Pelikulan planteatzen diren gauzei buruz. Hori da seguruenik pelikulaz esan daitekeen gauzarik onena” dio Basterrak. Edukia eta muina daukan dokumentala da Uriberen esanetan, ez da azalekoa.

Bost euskal sortzaile: hiru musikari (Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Rueda) marrazkilari bat (Mikel Valverde) eta idazle bat (Kirmen Uribe), New Yorken. Kirmen Uribek dioen moduan euskal hiztun guztiak sartzen dira New Yorkeko auzo bakarrean. Horrek zaharregi eta txikiegi egiten al du euskal kultura? Baina zer zeukan gurearen moduko kultura txiki batek New Yorki eskaintzeko? “Herri bat garela eta hemengo jendea oso humanoa dela” dio Uribek. Baina zer bila-

tzen dute, zer ikusten dute amerikarrek euskaldunengan? “Badugula tradizio luze bat, herri txiki bat garela, baina era berean gauza modernoak egiten ditugula. Eta kanpoari zabalik gaudela”.

### Jarrera kontua

*Verticals* izeneko laburmetraia du film honek abiapuntu. Basterra New Yorkeko Film Academy zegoen ikasten eta proiektu bat aurkeztu behar zuen. *Zaharregia, txikiegia agian* ikusizuna oinarri hartuta dokumental laburra osatu zuen. Geroago etorri zen *Agian*, “batera bizitako esperientzia hartatik” Basterraren hitzetan. “Hamabi egun bizi izan genituen elkarrekin. Esperientzia asko izan ziren. Niretzako pertsonalki oso garrantzitsuak. Nire barruan geratu zen esperientzia horretatik sortu zitzaizdan pelikula egiteko gogo. Eurek *Zaharregia txikiegia agian* egin zuten eta horrek zelan kontatu eman zidan. Baina zer kontatua aurreko esperientziatik etorri zen”. Pertsonon arteko loturak kontatu nahi ditu Basterrak. Leku batekoak edo besteak izan gauza asko ditugula antzekoak. Eta hori sortzaile izateaz gain lagun ere badituen bost pertsonen lanaz baliatuz kontatuko du. “Arkaitz nik taldean sartuko nuke” dio Uribek, “nahiz eta kameraren beste aldean egon”.

New Yorken pasatu zituzten egunak oso intentsoak izan ziren protagonistentzako. “Manhattanen emanaldiak egiten dituzu, jendea etortzen da, euskaraz irakurri arren gustatu egiten zaie. Irakeko gerra hasten da egun horietan. Eta egun horietan jakiten dugu poemetako bat, *Maiatza, The New Yorker* aldizkarian agertuko dela” gogoratu du Uribek. Basterraren esanetan New Yorkeko gauza asko eskaintzen ditu. Onak eta txarrak. Norberaren izaeraren eta jarreraren arabera era batean edota bestean hartzen dira gauza txar eta onak. “Hauek ekarri zuten jarrera hain irekia izan zen... Nik ezagutu nituen egunean flipatu egin nuen. Zu New Yorkera horrela bazoaz New Yorkeko gauza asko ematen dizkizu. Hori da beraiek ekarri zuten, mundua begiratzeko modu asko”. Konfiantza osoa jarri zuten zuzendariarengan bost protagonistek. “Jendearengan konfiantza izaten ikasi behar dugu” dio Basterrak. “Konfiantza zergatik izan jakin behar da, noski, baina, askotan gauzak konfiantza ezagatik galtzen ditugu”.

### Basterraren hurrengo filma

Bitartean Basterra beste film bat prestatzen ari da. Vojtech Jasny zinemagile txekiarraren inguruko dokumentala. Bere lehen film luzeak

## Harrera bikaina

Donostiako Zinemaldia, zinema areto komertzialetara saltoa... *Agianek* izan duen harrerarekin harrিতuta daude oraindik ere. Uribe bai behintzat. “Hau duela 10 urte ezinezkoa izango zen. Hemen parte hartzeak sekulako poza ematen dit. Gure lanagatik, eta baita gauzak egiteko modu berriak erakusten dizkidalako. Bide asko ari direlako zabaltzen. Bideoan egindako lan bat da *Agian*, dokumentala, kulturari buruzkoa, baina minoritarioa izan beharrean maioritarioa dena”.

utzitako esperientzia lagun du oraingoan. Bere esanetan, aurretik egindako guztiak balio izaten du. *Agianekin* pazientzia izaten ikasi omen du. “Proiektua hasten denetik bukatzen duzunerara arte urte batzuk pasatzen dira. Nire buruari hori gogorarazten ikasi dut, lan bakoitza zergatik egiten dudana ahaztu ez dezadan”. Prozesu luzea izateaz gain, jende asko behar duen diziplina da zinemarena. Jende guztiak helburuarekin bat egiteari oso garrantzitsua deritzo. Pelikula bera baita, azken batean, helburua. “Baina zuzendariak bakarrik egoten eta lan egiten ikasi behar du, nahiz eta taldean lan egin. Eta pozten naiz lehenengo lanarekin ikasi izanaz eta ez bigarrenarekin. Oraindik gauza asko ikasi behar ditut, baina behintzat hori ikasita daukat. Gure lanak daukana da hil arteko prozesua dela. Ez da bukatzen inoiz. Azkenean zure lanerako ikasten duzu eta baita bizitzarako ere”.

### Uriberen lana ingelesez

Uribek ere asko ikasi du New Yorkeko egonaldien eta *Zaharregia txikiegia agian* proiektuaren laguntzarekin. Orduetik ezberdin idazten duela aitortu digu. Beste leku batean kokatzen duela orain bere burua, konfiantza hartu duela. Ez hori bakarrik, oparia ere badakar beso azpian. Graywolf Press argitaletxe entzutetsuak *Meanwhile take my hand* kaleratu berri baitu. *Bitartean heldu eskutik* liburuaren ingelesezko bertsioa. Elisabeth Macklin poetak bere bertsioa egin du, baina poemaren atzean dagoen esentzia mantenduz. Horretan bat datoz Uribe eta Basterra. “Ingelesezko bertsioan Kirmen osorik dago”.

Apurka apurka hasi zen Macklin Uriberen poemak itzultzen. Lagunei bidali lehenengo eta gero, ostera, aldizkarietara. “Elisabethen planteamendua beti gustatu izan zait. Elisabeth poemak itzultzen hasi zenean ez zegoen gaztelaniazko bertsiorik. Ez zegoen frantsezko bertsiorik. Gero etorri dira horiek. 2002an hasi zen itzultzen, liburu atera eta

“New Yorkeko bati berdin zaio zu euskalduna izatea edo armeniarra, kontua da *new yorker* horrek bere burua ikusi behar duela poema horretan” KIRMEN URIBE



gutxira". 2003an New Yorkera joatea pentsatu zuten Uribek eta beste lau euskal artistek. Beste hirutan ere egon da bertan Uribe. "Pixkanaka pixkanaka egindako lanaren ondorioz argitaletxe handi bateko editoreek deitu digute eta atera dute liburua. Liburua nola atera den lezioa izan da denontzako".

### Nobela berria bidean

Uribek pazientziarekin lan egitea atsegin du. Liburuak asko lantzea gustatzen zaio. Orain fikziozko nobela bat idazten dabil. Hiru urte daramatza lan horretan. Badaki aterako dela, eta ondo. Baina noizko? "Ezin dizut esan". Bere neurria probatu gura du lan berri honekin eta, gainera, *Bitartean heldu eskutik* liburuak izan duen itzal handiaren ostean, ezingo luke beste poema liburu bat idatzi. Bere lehengo liburuaren arrakasta dela eta presio handia sentitu du zenbait momentutan. "Orain Kirmenek zer egingo du, halako itzala eta gero?". Hala ere, "Bingenengandik eta Arkaitzengandik presio hori gaineratik kentzen ikasi dut. Askotan hitz egin dugu horri buruz. Beldurrik gabe sortu behar dela. Gaizki ateratzen bada, beste gauza bat egingo dut. Orain, egia esan, nahiko libreki ari naiz idazten". Momentuz fikziozko eleberria du eskuartean, baina "poemak etengabe idazten ditut eta etorriko dira" dio.

Tradizioari bizkarrik eman gabe munduari begiratzen dion poeta da Kirmen Uribe. Eta orain munduko zati bat du berari begira. Baina

zer behar du poesiak unibertsala izateko? "Pertsonen kezkez hitz egin behar du. Edonon errekonozituko duten hizkuntza edo hizkera batean. Nik uste dut poesia pertsona eta mundua dela. Kontraesan horretatik sortzen dela. Duela 2.500 urte Grezian hortik sortu zen. Gaur egun ere unibertsala izateko hori egin behar da. Pertsonaren kezkek toki jakin batean... New Yorkeko bati berdin dio zu euskalduna izatea edo armeniarra, kontua da *new yorker* horrek bere burua ikusi behar duela poema horretan".

Eta garrantzitsua da hurbilekoa izatea. Erreferente hurbilekoekin ere poema konplexua egin daitekeela uste du. Bauhaus estiloko arkitektura aipatu du eta aurretik zegoen arkitekturarekin konparatu. "Ilunetik argirako aldaketa hori nahi nuen. Lerro zuzenak denbora guztian. Lerro soil batzuekin etxea egin. Horrek ez du esan nahi erraza denik. Soila bai, erraza ez".

Beharbada horixe da *Agian* eta *Bitartean heldu eskutik* batzen dituen. Zintzotasuna eta hurbiltasuna. Artelan bat topagunea da Basterrentzako. Jendea batzeko leku bat. "Hori lortzeko hurbileko erreferentziak erabili behar dira eta ez klitxeak". Ezagutzen dituzten gauzak kontatu beharrean, imajinatzen dituztenak kontatzea artifiziala da berarentzat. "Jendea ez da leloa. Istorioa izan daiteke fikziozkoa, baina emozioak benetakoak izan behar dira. Benetako emozioek transmititu egiten dute. Egia emozionala existitu behar da". n